



## **- 2018ko TALDE LEHIAKETA - Getxoko 42. Nazioarteko Jazzaldia**

### **Parte hartzeko baldintzak**

1. Lehiaketara jazz musika jotzen duen Europako edozein talde aurkez daiteke, zein ere den haren joera edo estiloa. Hautapen Batzordeak haietariko LAU talde aukeratuko ditu, 2018ko uztailaren 4an eta 7an bitartean joko dutenak hain zuzen ere.
2. Lehiaketan parte hartzen dutenen gehienezko adina 30 urtekoa da, 2018 urtean betetzekoa eta inskribatzeko orduan kreditatu beharrekoa.
3. Parte hartzeko eskabide orriei, taldearen kalitatearen egiaztagarri izan daitekeen edonolako materiala erantsiko zaie, taldeak grabatutako CD bat eta kalitate oneko ARGAZKI BAT bidaltzea erabat ezinbestekoa delarik.
4. Izenemateko epea otsailaren 10ean 13:00etan itxiko da.

### **Aukeratutako taldeak**

5. Aukeratutako taldeek eskudirutan jasoko dute konpentsazioa joan etorriko gastuei aurre egiteko:
  - \* 200 € Euskadiko taldeentzako
  - \* 700 € Espainiako taldeentzako
  - \* 1200 € Frantzia, Portugal, Herbehereak, Luxenburgo, Belgika eta Suitzako taldeentzako
  - \* 1500 € Italia, Erresuma Batua, Irlanda, Danimarka, Alemania, Austria, Txekiar Errepublika, Bosnia-Herzegovina, Kroazia eta Esloveniako taldeentzako
  - \* 1800 € Suedia, Finlandia, Norvegia, Errumania, Bulgaria, Zipre, Grezia, Hungaria, Polonia, Eslovakia, Albania, Mazedonia, Montenegro, Serbia, Estonia, Letonia, Lituania, Islandia, Malta eta Errusiako taldeentzako

Halaber, jaialdiak musikari guztiei emango die ostatu Getxoko hostaletan, eta musikari bakoitzak 35 euro jasoko ditu egunean dieten kontzeptupean.

6. Jotzeko denbora Antolakundeak berak xedatuko du eta taldeei behar adinbateko lehentasunaz jakinaraziko zaie.
7. Aukeratutako taldeei derrigorrezko doinu bat ezarri ahal izango die Getxoko Jazzaldiaren Antolakundeak. Prestatzeko behar beste denboraz jakinaraziko die zein.



8. Epaimahaiaren erabakia ezin gora joko da eta bidezko deritzona erabaki dezake.

9. Baliteke lehiaketa telebistarako grabatua izatea.

10. Honako sariak ezarri dira:

- LEHEN SARIA: 4.300 euro\*, diska baten edizioa\*\* eta trofeoa.

- BIGARREN SARIA: 1.800 euro\* eta trofeoa.

- BAKARLARIRIK ONENA: 900 euro\* eta trofeoa.

Oharra: talde irabazleak beste kontzertu bat emango du uztailak 8an, igandea.

(\*) Indarrean dauden zerga-arauen arabera, zenbateko horiei dagozkien derrigorrezko atxikipenak egingo zaizkie.

(\*\*) Diska "zuzenean" egingo da, talde irabazlearen ekitaldi bien grabaketak erabiliz. Egile eskubideen gisa, talde irabazleari kaleratutako disken %10a emango zaio.

### **Azken zehazkizunak**

11. Nora jo informazio bila eta izenematerako:

GETXOKO KULTUR ETXEA  
Nazioarteko Jazzaldia  
Villamonte A-8 behea  
48991 Algorta-GETXO (BIZKAIA)  
Tfno. zkia.: 94-4914080  
Email: [isaitua@getxo.eus](mailto:isaitua@getxo.eus)  
[www.getxo.eus/jazzgetxo/](http://www.getxo.eus/jazzgetxo/)

12. Antolakundeak bere esku du oinarri-arau hauen aldatzea, baldin eta hala behar balitz.

13. Getxoko Europar Jazzaldiaren Talde Lehiaketan parte hartzeak oinarri-arau guzti hauek onartzea esan nahi du.